

## BERDINTASUN-TEKNIKARI POSTUA SORTZEKO MOZIOA

Martxoaren 8a, Emakumeon Eguna, orain arte lortutako eskubideak ospatzeko eguna da, baita Mugimendu Ferministek eta norbanakoek egindako lana aitortzeko eta aurrera begirako erronkak mahai gaineratzeko eguna ere.

Parekidetasunaren alorrean urratsak eman diren arren, oraindik ere hainbat erronka ditugu aurretik ezinbestekoak diren eskubideen aldeko borrokan. Generodesberdintasun estrukturalen errealitatea ukaezina da. Bide horretan, instituziook berdintasun-politikan urrats sendoak eman eta beharrezko neurriak hartzeko ardura daukagu, eta behar bezala erantzun behar diogu daukagun erantzunkizun publikoari. Horretarako, betiko adierazpen instituzionalez haratago, ezinbestekoa da neurri zehatzak hartzea.

Lasarte-Oriako Udalean, ordea, berdintasun-politika integralak abian jartzeko ezintasuna nabarmena da. Biztanle kopurua kontuan hartuta, Gipuzkoan berdintasun-teknikaririk ez duen herri bakarrenetakoa da. Horrek, jakina, hainbat ondorio dakartza, besteak beste, Lasarte-Oriako berdintasun-plana ezin egikaritzea eta indarkeria matxisten kasuei ezin behar bezala erantzun ahal izatea. Aldarria ez da berria, herriko mugimendu feministek, herriko ikastetxeek, norbanakoek... exigitu diote Udalari berdintasun-teknikaria kontratatzeke, baina Lasarte-Oriako Udalak ez die inolako erantzunik ematen.

Kezkaz bizi dugu egoera eta ezinbestekoa deritzogu berdintasun-politika integral eta zehatzak abian jartzeari, lehenbailehen. Lasarte-Oriako Udalak, urteroko adierazpen instituzional eta promesez harago, beharrezkoak diren neurriak hartu behar ditu.

Horregatik guztiagatik, Lasarte-Oriako Udalak honako hau adostu du:

1. Berdintasun-teknikari postua sortzea.
2. Berdintasun-teknikaria kontratatzea Lasarte-Oriako berdintasun-plana abian jarri eta egikaritzeko.

Adostutako hori abiapuntua besterik ez da. Berdintasunean urratsak eman eta Lasarte-Oria parekideago bat izateko bidean, ezinbestekoa da lehen urrats hori ematea. Egun parekidetasunaren alorrean, ezinbestekoak diren eskubideak lortzeko ditugun erronkei erantzuteko garaia da.

Uxu  
e

Uxue  
2022.03.0  
2 18:09:05  
+01'00'

JON  
ANTXORDO  
KI REKONDO

Firmado  
digitalmente por  
JON ANTXORDOKI  
REKONDO  
Fecha: 2022.03.02  
09:18:35 +01'00'

David  
Ares

Firmado  
digitalmente  
por David Ares  
Fecha:  
2022.03.02  
11:44:31 +01'00'